
ZOLI eta
KUKUBILTXO
JESSE-83

Liburu hau
Eusko Jaurlaritzako
Hezkuntza Sailak onartu dau
1983ko ekainean

# ZOLI ETA KUKUBILTXO

Eragileak: Fermin Iraolagoitia

Egilea: Bibiñe Pujana.

Egokitzaileak: M.ª Luisa eta Bibiñe Pujana

Marrazkilaria: Jesus Antonio Ruiz

Margoa: Ernio, S. L.

Depósito Legal: BI-789-85.

ISBN: 84-398-3841-7.

Inprimaketa: Gráficas Ibarsusi, S. A.

Argitaratzailea: IKA, Euba. Tnoak.: 673 04 86 - 673 18 50

Argitaletxea: Ibaizabal

# ZOLI ETA KUKUBILTXO

BIBIÑE ETA
M.ª LUISA PUJANA

Amamaren baserrian Zoli
izeneko txakur bat bizi
zan.
Bere urre koloreko ule-
a beti garbi eta astin
erabilten eban.
Goizero, ohetik jaiki eta
lehenengo beharra txu-
kuntzea izaten zan.


JESSE-83

Zoli inguru guztietatik ibilten zan. Abere guztiak bere lagunak ziran.

Jatorduetan bere ugazabaren hanka ondoan etzunda jartzen zan eta, gogo handiz jaten ebazan, honek botatzen eutsazan hazur, azal eta danetariko guztiak.


JESSE
83

Etxe haretan Kukubiltsco
izeneko katu bat be
bizi zan.
Kukubiltsco eta Zoli
nahiko ondo konpontzen
ziran, nahiz eta jator-
duetan bata bestearen-
gandik urrin egon behar.


JESSE-83

Eguerdi baten, Zoli, beti
bezela, bazkaltzeko
mahaipera joan zan.
Kukubiltsco ez zala ager-
tzen eta arduratzen hasi
zan.
"Kopau" bat jan eta biz-
kor joan zan lastati-
rantz katutscoa bilatzen.


JESSE-83

–Kukubiltsco! Kukubiltsco!– deitzen eutsan abots tscanpalagaz.
Baina Kukubiltscok ez eutsan erantzuten.
Etsceko zuloak arakatu ondoren auzoko lastatira joatea gogoratu jakon.


JESSE-83

–Ene!, zer ikusten dot!,
Kukubiltsco sei katutsco-
gaz!.
Astiro astiro hurreratu
eta katutscoak laztan-
tzen hasi zan.
–Zoli!– esan eutsan katu-
tscoak –Zure tscakurra hil-
da jaio dan ezkero, hari
emon beharreko titia, ni-
re katutsco bati emon
beharko deutsazu.


JESSE-83

-Bai pozik be!- erantzun eutsan Zolik. Eta katu-txco uletsu bati zapu-tzetik heldu eta bere etxera eroan eban. Lastatiko bedartzan ha-bi bero-beroa egin eu-tsan eta gero titia emon.


JESSE·83

Katutxcoa egunetik egunera
haziz joian eta habitik
urteten ere hasi zan.
Zoli nora, bera hara
ibilten zan beti.
Okanen bat aurkitzen ebe-
nean itzalezko olgetak
egiten ebezan.


JESSE-83

Behin, Zoli aitita Roke-
gaz mendira joan zan.
Katutxcoak be joan gura
izan eban, baina .....
– Ez, zu etxcean geldituko
zara, azagari asko dabil
basoan eta ....! – esan eu-
tsan Zolik.


JESSE-83

Ilunkeran, menditik aitita bakar bakarrik etorren.
- Eta Zoli?.
- Ez arduratu! - esan eutsan aititak Kukubiltxori.
- Zoli erbi baten atzean joan da baina, bidea badaki eta, laster etorriko da.


JESSE-83

Gaba igaro zan, baita
egun edurtsuak be eta
Zoli ez zan agertzen.
Egun baten, katutxoak,
lukainka eta ogi zati-
txoa hartu eta basora
joatea erabagi eban.
Asko ibili ondoren, neka-
tuta egoala ta, zugaitzpe
baten lo gelditu zan.


JESSE·83

Lo gogorrean egoala, urru-
nean entzun zan ulu
handi batek itzartu
eban.
Bizkor bizkor zugaitz
ganera igon behar izan
eban.


...AVUUUUUUUUUU
JESSE-83

Dardar pago ganean,
miauka hasi zan.
Bat batean, behean ego-
an otsoetariko bat zaun-
ka hasi zan.
Berehala alkar ezagutu
ziran:
– Zoli!, Zoli! – esan eban
katutxoak.


JESSE-83

Zugaitzetik jatsi eta Zoli-
ren besoetara joan zan.
– Ez izan bildurrik ene
katutxoa, honeek nire la-
gunak dira ta! – esan
eutsan Zolik.
Handik atzine,
"zu nora - ni hara" ibilten
ei ziran.


JESSE-83

# UMEENTZAKO IPUIN-TXORTA

1.—MARI ANBOTON ETA GORBEAN, Juan Manuel Etxebarria
2.—BAKOITZARI BEREA, Ramón Etxebarria
3.—TXOLINTXU ETA NEKANETXU, Bibiñe Pujana - L. C. Abeal
4.—KARRAMARROEN IBILALDIA, Félix Zubiaga
5.—FRAKOTE IKERLARI, Ana Arruza
6.—MARI ANBOTOKOREN IBILALDIAK, Josu Penades Bilbao
7.—KUKUMETS, Juantxu Rekalde
8.—BASAJAUNAK, Juan Manuel Etxebarria
9.—AMAMAREN ABERETXOAK, Bibiñe Pujana
10.—LAMIÑAK, Juan Manuel Etxebarria
11.—KUKU PASOTA, Félix Zubiaga
12.—TXITXIBURRUNTZI ETA ARATOSTE, Bibiñe Pujana
13.—HALABEHARREZ MEDIKU, Félix Zubiaga
14.—IBANENTZAKO ARGI APUR BAT, Edurne Urkiola
15.—MAINTON ETA PRAISKU, Bibiñe Pujana
16.—ABEREAK, Igone Magunagoitia
17.—ONDO IKASITAKOAREN AGERBIDEA, Ramón Etxebarria
18.—KISMI ETA OLENTZERO, Juan Manuel Etxebarria
19.—ZOLI ETA KUKUBILTXO, M.ª Luisa eta Bibiñe Pujana
20.—OILANDA BALTZA, M.ª Luisa eta Bibiñe Pujana
21.—ARGINTXO ETA ENEKO KUKUAMETSEN, Juantxu Rekalde eta M.ª Luisa Pujana
22.—PERU TA MARIXA, Sabin Barruetabeña
23.—ARPEKO MARI, Eusebio Erkiaga
24.—SAN MARTINTXO, Juan Manuel Etxebarria
25.—PERUTXU ETA JENTILA, Juan Manuel Etxebarria
26.—HODEIA ETA ABADEA, Juan Manuel Etxebarria
27.—ARGI ETA TXIKO DEABRUAK, Juan Manuel Etxebarria
28.—PRAKAGORRIAK, Juan Manuel Etxebarria
29.—GORBEAKO TXORI GAIZTOAK, Juan Manuel Etxebarria

Zb. 19

I.K.A. - Ibaizabal